

## **Ekonomia eta Enpresa Fakultateko nazioarteko mugikortasunerako arautegia**

Esparru orokorra Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko **ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko arautegiak** ematen du, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2017ko irailaren 28ko Erabakiaren arabera.

Hala ere, eta akordio horren 9.1 artikulua ezartzen duen bezala, unibertsitate zentroek, kide anitzeko gobernu organoaren erabakiz, beren titulazioetarako berariazko eskakizunak onartu ahal izango dituzte nazioarteko mugikortasuneko plazan deialdietan parte hartzeko.

Arautegian ezarritakoarekin bat etorrituz, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Batzarrak, 2018ko azaroaren 9ko bilkuran, parte hartzeko baldintza espezifiko batzuk onartu zituen. Betekizun horiek aldatu egin ziren, Dekanorde eskudunek proposatuta, 2021eko azaroaren 18ko bilkuran, eta 2022ko uztailaren 21eko Fakultate Batzarrean eguneratu ziren.

### Fakultateko ikasleei eskatzen zaizkien baldintzak:

- 48 ECTS gaindituta izatea gradu hauetan eskaera egiteko: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua, Ekonomiako gradua, Zerga Sistema eta Administrazio Publikoko gradua, Marketineko gradua eta Negozioen Kudeaketako gradua.
- 60 ECTS gaindituta izatea Double Bachelor Degree in Business and Economics delakoan eskaera egiteko.
- 72 ECTS gaindituta izatea gradu bikoitz hauetan eskaera egiteko: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza; eta, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako gradu bikoitza
- Oinarrizko 54 ECTS (lehen mailakoak) eta guztira 90 ECTS (oinarrizkoen eta nahitaezkoen artean) gaindituta izatea, mugikortasuna gradu hauetan egiteko: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua, Ekonomiako gradua, Zerga Sistema eta Administrazio Publikoko gradua, Marketineko gradua eta Negozioen Kudeaketako gradua.
- 120 ECTS gaindituta izatea mugikortasuna egiteko Double Bachelor Degree in Business and Economics delakoan.
- 90 ECTS gaindituta izatea mugikortasuna gradu bikoitz hauetan egiteko: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza; eta, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako gradu bikoitza
- Eskaera egiten den unean 120 ECTS baino gehiago gainditu dituzten eta/edo batez beste 6.0tik beherako nota duten ikasleek ezin izango dute urteko destinatorik eskatu.

### Irakaskuntza modalitatea:

- Akordio akademikoetan ezin izango dira sartu modalitate birtualean soilik eskainitako irakasgaiak, salbu eta erakundearen arteko lankidetzak hitzarmenak hala aurreikusten badu edo mugigarritasun aldian sortutako salbuespenezko zirkunstantziaren batek aurrez aurreko irakaskuntza eragozten badu.

### Zigorrak:

- Ikastegiak ezarritako epetik kanpo esleitutako mugikortasun plazari uko egiten dioten ikasleak zigortuak izango dira, eta ezingo dute parte hartu hurrengo ikasturteko mugikortasun programen deialdietan.